



Unai Fernandez de Betoño
Arkitektoa

Errekaleor inguruko hirigintza

Hanka sartze urbanistikoa izan zen 1950eko hamarkadaren amaieran Errekaleor auzoa Gasteizko hiri-bilbetik hain urrun eraikitzea. Baina

beste hainbeste esan daiteke Abetxuku herrixkaz, Armentiak San Prudentzio taldeaz, Ehariko Imosa langile-koloniaz eta Aretxabaletako Bustaldea etxe-multzaz, eta ez da eskatu horiek eraistea. Argi izan dezagun: EAJ-PSE-PP troiak Errekaleor eraitsi nahi du 3.561 etxebizitza berri eraikitzeko operazio erraldoi baterako oztopo bihurtu daitekeelako, indar gehiago hartuz gero.

Egia da etxe horiek ez dituztela bihar edo etzi egingo, urte batzuk pasa behar direla. Baina ez bat-batean lurzoruen erabilera zentzudunago bat sustatu nahi delako, baizik eta, urteotan edonola eraikitzearen poderioz (aski da Arkaiate edo Larrein ikustea), Gasteizko etxeen salmenta erabat geldirik dagoelako oraingoz. Hau da, adreiluaren burbuila berria ez delako soilik bi egunetan berriz puztuko, eta, ondorioz, gainbalioen jolas urbanistikoa ez delako sobera etekingarria une honetan. Hala ere, badaezpada, Errekaleorren 300 edo 400 «antisistema» (EAJ-ren esanetan) bizitzen gotortu baino lehen, komeni da hondeamakinak hara bidaltzea, 14. sektoreko lursailletako jabe diren Gasteizko eraikitzaileen (Berriaga Gestión Inmobiliaria, Yarrantu, Centro Urvasco, Zadure, Construcciones Fernández de Nogra, Izkiz Promociones, Yorralde, Fergose 1...) interesak ongi babesteko.

Zeren eta EAJk xisteratik atera duen ortu ekologikoen proiektua aitzakia hutsa da, eta ekologiarren enegarren erabilera interesatua. Ez dago inolako plan seriorik ortu ekologiko horiei dagokienez: dagoen gauza bakarra da jeltkideen Power Point propagandistiko bat, zeinetan, bitxia bada ere, Errekaleorren dauden 20 eraikinetatik 17 zutik mantentzea proposatzen baitzuten. Baratze ekologikoa


benetako proposamena balitz, Errekaleor inguratzen duen 14. sektore urbanizagarriak planteamendu urbanistikoa aldatzeaz arduratuko lirateke, abian den Hiri Antolamenduko Plan Orokorren berrikuspenean. Sektorearen desklasifikazioa, urbanizaezin gisa berrizendatuz, zentzu horretan, aukera sinesgarria litzateke.

Errekaleor inguratzen duen sektorearen desklasifikazioaren kontra, ordea, troikako politikariek diote milaka milioietako kalte-ordainak eska litzaketela lursailletako aipatutako jabeek, indarrean dagoen hirigintza-plangintza aldatuz gero. Baina ez da egia.

Udalak *ius variandi* baitauka, alegia, bere eskumena den hirigintza modu zentzudunetan aldatzeko eskubidea. Eta, Alfonso Alonsok Plan Orokorra 2000n onetsi zuenetik egoera sozioekonomiko eta urbanistikoa erabat aldatu denez, logikoa litzateke Gasteizko hiri-eredia egokitzea, esandako 14. sektorea, besteak beste, desklasifikatuz. Lursailletako jabeek soilik eska litzakete orain arte edukitako benetako gastuak itzul-

tzea, eta ez irabazteko asmo dutena, 8/2007 Espainiako Lurzoruen Legeak argi utzi moduan; hots, urbanizazio-lanak hasi ez direnez, plan eta proiektu teknikoak idazteko sustatzaileek gastatu duten dirua soilik. 712.000 euro baino dezente gutxiago dena, ziur. Alegia, Errekaleor eraisteko Plan Bereziak aurreikusten duen kopurua baino gutxiago. Gasteizko Eratzun Berdea ere, kasualitatez, Errekaleorren gainetik pasa behar dela iragarri du orain EAJk. Ahaztuta, akaso, alboko Elurretako lursailletatik pasatzea adostua zegoela. Eta arraroa da hori ahaztu izana, lursail horien erosketa, Alfonso Alonsoren udal-gobernuak sortutako Cosubapre pantaila-enpresa ilunak lehen aipatutako eraikitzaile batzuekin batera 2006an egindakoa, «Gasteizko hirigintza-pelotazorik handiena» izan zela esana baitzuen Urtaranek, alkate izan baino lehen.

Argi dago EAJ eta PPren arteko ituna Errekaleor eta haren inguruetatik ere pasatzen dela. Eta eraitsi nahi duten gauza bakarra ez dela diru-sarrerak bermatzeko errenta. •



Ilustrazioa: UNAI FERNANDEZ DE BETOÑO